


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

157n. Zenbakia Azilla
Zemendia
1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**ERROMANIKU-TANKERAKO BATEO ARRIA
(Estibaliz'en)**

- ERTI-LAN EDERRA
- ANTXIÑAKO EUSKALDUNEN EZAUGARRIA
- ORAINTSURA ARTE KORTA BATEN BAZTERTUA
- EDERTASUN ZARRA, BARRIAREN OIÑARRI

BIZIA AUPADA BAT DA, ARPEGI EMOIOZU

Bene benetan, bizia dei bat da. Begiratu sendira, mendira, ikastetxera, soloetara, itxasora, eguroletara, burdiñoletara ta danak daukaguz deika; euren aupadea estua ta arduratsua da sarri askotan.

Lurrean sortu izan dan gauz eder ta oiñarrizkoenatariko bat sendia da. Bizia berezko izaerak, laguntasun-bearrak, odolak ta gurasoen seme-alabakanako ta seme alaben gurasoenganako garra-murak eskatzen dau alkarrekin bizi izatea. Gurasoen maitasun-leia euren semeengana doa, odola deika dago; gurasoen bizia bizi dira.

Lengo aldi baten, aize aldi bat izan zan, komunismoaren izenean sendia austeia nai izan eban putskeria. Sendia ausi ta giza-seme-alabak estatua-
ren otsein ipintea nai izan zan... Gaur, berezko legearen aurka ta estatua-
ren aldeko morrontza ori nai ebenen bidea, ankaz gora ta buruz bera, lurpe-
ra joan da.

Aurretiko beste era bateko nauskeriak, sendia ausi ta estatua goratu nai izateko bide gaiztoari sorrera emon eutson, baiña giza-asmabide orrek ezin izan dautsoe geiagorik egin bizia berezko legeari. Ta bejon daiola bizitzaren zuzentasunari...!

Sendia, zure zeregiña, aundia ta bakana da lurrean. Ori dala-ta, zure aupadeak, beti, deadar egingo dau gizartean. Ta zuk ezarriko dautsazu gatza bizia bere oiñarrizko sor-lekuan.

Beste bizitzaren aupada bat mendia da. Izan bere, nork ez dau nai mendira joatea, aize osasun-
tsuaz bizia indartzea ta poza biotzari emotea...?
Mendiaren egala lirain dago egun-sentian, itxaso

aldetik urrezko bola baten argia sortzen danean, ta arrats-beran, eguzkia, geldi geldika, ditzizari, itxasora doanean.

Mendiaren bizia deika dago ta ederra opaka. Ederraren ederrez, ator ator, dirausku ta lurraren mamiñez, gizontasunez landu ba-nagizu, aritzik sendo ta lerdenenak ta fruturik gozonenak emongo dautzudaz. Izan bere, gure arbasoak, ondo nekattuta, atxurrez, landu zituen Euzkadiko lurraldeak, zugatzez, ondo joriturik.

Bizia aupada eder bat ikastetxera be bado. Giza semeak lurra landu bear eban biotz eta adimenaren bidez. Almen eder bi onek, ordu onean, artu zituan giza-semeak gizadiaren bizia argitu ta zuzentasunez aztertuteko.

Bizia, gaztetasuna, indarra dira zugatz sendoaren sustraiak, baiña gazte leiñargia, jakituriaren sustraia jakintsuen argi ta oarikasia artzea da. Ortarako sortu izan ditue gizon ikasiak jakinkizun ikastegiak... oldartu ta arpegi emoiu zure barnean dozun argi txinta orri, eguzki urre biurtu dedin gizadiaren bizi barrirako.

Argitik eta biotzetik sortu bear da lur barria ta bizi ohea, gizadi ederrago bat gizon zentzundunen alkartasunean sortu dedin emen, lurrean. Buru ta biotzdunen zorra da, argitasun ta biotzez gizadiko txirotasuna ta negarra ibitu ta anaien arteko bazkun bakezkoa sortu ta gozartutea.

AMERIKAK, AITA SANTUA ETA EUSKALDUNAK

Bosteun urte izango dira datorren urtean Europa'ko muudua ta Ameriketakoa, txarto edo oudo, alkartu eta besarkatu zirala.

Milloiak urteak dirala, lurrez bat izan ei ziran, oraindiño munduau gizakirik bizi ez zala, baiña gero banatu ziran eta itxaso zabala bitarte dala, alkarraugandik urrindu.

Orrelau, gizarte bik bakoitxak bere bidetik aurrera egui eben eta jakiutza oso ezbardin bi sortu ziran.

Oraiu 500 urte dirala, 1942'au, gizarte ezbardin bi oueik alkartzea izan ebeu, Colon bere laguuakaz ara eldu zalako. Alkar aurkitze au pozgarria izan zau, naizta gero alkar aurkitze oueu ondoren asko oso mingarriak izau, batez be emendik ara joau zirauak nagusi lez joan eta augoak menperatu ebezalako.

Artu-emonetau ez zirau ba, gauzak ondo joan, eta gaur be orren oudoreuak ikusteu gagoz. Zori txarrez zapalkuutza ta fedea batera joan ziran lurralde areitan eta ar.go lurren jabe zirauak alboratuta eta, sarritau, jabetza kendu eta joputzara beartuta geratu-bearra izau eben.

Ain garbia izan ez zau ekintza onetau, asieratik eta urteen joanean, euskalduuak be kideko izan ziran Colon'eu laguneu arteau eta geroago. Ango inditarrak eta emengo euskalduuak izau ebeu oudoreua antzekoa izan zau: Baztertuak, alboratuak, zapalduak. Iuditarrak euren "reserbak" daukezen antzera, emen euskaldunak, euskera berba egiten dabeuak, urietatik alboratuak eta meudietau baztertuak izan dira. Naikoa da leu euskera nou egiten zan eta gaur nou egiten dau jakitea.

Baiña, zeatzago begiratuta, zelako jokabidea izau ebeu ara joan ziran euskalduuak? Beti beste España'tarren antzekoa?

Nik uste dot gauzak apur bat argitu egui bear dirala.

Ango laterrieu askatasuna aldarrikatu eben gizonik ospetsueuak, euskaldunak izau ziran. Ez da aiztu bear Simon Bolibar'eu lan auudia. Gizon askatzaille ospetsu au ez da jaiotzaz euskalduua, baiña bai odolez eta jokabidez.

Eta ez da bakarra. Olako askatzaille asko izan ziran Ameriketan gizaldi areitan. Arazo au aztertzaileentzat aztergarria da eta Frai Bartolomé de las Casas'ek eritxi aldetik egui ebaua, sarritan euskaldunak egitez bete ebalak ikusiko litzake.

500u. urte au gogoratzean, euskaldunak an egin ebe-zau gauza arrigarriak ez dira ba aiztu bear eta beste batzuk egin ebezan gauza lotsagarriakaitik guk ez dogu beti lotsatu bear. Lan txalogarria litzake 500n. urte ouetan euskaldunen ekintzak gogoratzea.

Oraintsu izau da Aita Sautua Brasil'en barriro. 180 alkarte ikustatu dauz eta alkarte orreitau 250.000 biztaule, oso txiroak eta alboratuak, beztertuta dagozau eta antxiñako lur-jabeeu jatorriko diran inditarrak, orain lurrak kenduta eta lur-jabe barrien aldetik aurrean erabilliak.

Oueiu eskubideeu alde agertu da Aita Santua. Arazo ori dala-ta, Iuditarrak euren eskubideak aldeztu dabezela-ko, aurten amabi izau dira, eraillak.

Zer izango ete zan emeugoak ara joan eta angu jakintza ederrak zapuztu ez ba'ebezan?

Gaur muuduaren jakintza, zalantza barik, aberatsagoa izango zan.

Eta zergaitik izan ete da, iparrameriketan laterriak aberatsagoak izatea, eta egoameriketau txiroagoak? Iuguru giroaren indarra? Enda ezbardin bi alkartzean sortu dan txirotasuna? Aberats izau nai daben batzureau zikoizkeria? Erantzuna ez da izaugo erreza, baiña galderak or dagoz. Ba-dauka zer-pentsau guztieutat, euskalduneutat be bai, bosteugarren urte ouek. Eta ez dogu geratu bear pentsatze utsean, au dirau aberri ta laterri txiroai, iuditarrak be bai, zelan laguudu peutsau bear dogu.



"GIZON JATOR ETA EREDUGARRI BAT JOAN JAKU"

Bizi garean aldiotan, euzkerea egoera larrian dagola esatea ez da gauza arrigarria. Egia esateko, arazo asko daukaz, oso banatuta dago, eta orretzaz ganera, benetako euzkerea, euzkera errikoia, geroago eta geiago baztertuta dago. Ikusi, bestela, zelango jokabidea daroien bere alde lan egin bearke leukeenak: sasi-euzkera edo "el batua" ori sartu nai ta naiez, eta besteak... or konpon.

Zorionez, euzkera errikoia alde ba doguz lan bikaina egiten dabenak. Esaterako: "Euzkerazaleak Alkartea", "Euzkerazaintza", "Arbasoen Izkuntza-Zaleak", besteak beste. Baita gizaseme batzuk be: Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Augustin Zubikarai... eta abar. Eta zati aundi baten euri eskerak geure izkuntza ederrak bizirik dirau ondiño.

Zoritxarrez be, mundu onetatik asko joan jakuz eta orrein artean bat aitatuko neuke: AITA LINO AKESOLO, il barri jakuna, ain zuzen be. Benetako samintasuna eta goilbetasuna sentidu neban bere eriotzareu barri jaso nebanean. Asikera, ezin neikean siñistu ori. Baiña, egia osoa gogorra izaten da eta barri ori egiazkoa zan.

Ezpai barik, Geure euzkerek, eta batez be euzkera errikoiak, aldeze aundi ta zintzo bat galdu dau, eta Aita Linok itzitako utsunea oso gatxa izango da betetea.

Berak euzkerearen alde egindako lana, erraldoi baten lana da. Neurte-eziña, parebakoa eta ezin-obeia. Zorionez, bere emoitza be itzelak izan ziran eta orain

euzkera-jatorraren alde gabiltzanok, geure izkuntza benetan maite badogu berari jarraitu bearke dautsagu.

Danok, gazteak eta zarrak, euzkeldun zarrak eta barriak, bide beretik joanda, geure alegiñak batu bear doguz; olan, emoitza onuragarriak lortuko dira. Alan be, gauzak ez dagoz batere errezak, eta asko kostauko da aurrera egitea. Une orreitan, baiña, Aita Linoren indarra eta kemena gogoratu bear doguz.

Gaur, iñoiz baiña geiago, euzkerek geure laguntza bear dau eta ez dogu uts egiterik, ez dogu laketu bear otzitasunak edo alperkeriak gu menperatu gaizanik. Ori ez, ezelan be.

Orretan dogu gizon eredugarri ta zintzoa AITA LINO. Euzkeldun sendoa, bai egoera bikaiñetan eta bai ordu latzetan. Beti bere elburuari eutsiaz, atzera egin barik.

Ikasi daigun beragandik eta ekin zintzo-zintzo geure biarrari, geure asmoak betetu gura badoguz; auxa da: Euzkereari indar aundia emotea eta geure Aberri osoa euskalduntzea.

Amaitzeko, azken agurra emon AITA LINOri, Jaungoikoaren Erreiñuan betiko Bakea eta Zoriontasuna artuko dauzalakoan. Goian Bego eta Egun Aundirarte.

MALAX-ETXEBARRI TAR JON
"KALAMUA"

EUSKAL-ASTEA BIZKAIERAZ

Aurten be, urte guztietan lez, egingo dogu Euskal-Astea, Bilbao'ko Eskolapiotarren Ikastetxean.

Aurten abenduan egingo dogu, igazko egunak eragozpen batzuk eukezelako. Egunduan abenduaren 9'tik 13 ra arte. Eta gaiak: Elertia, Irakaskintza euskeraz, Labayru Ikastegia, Euskalerriaren kondaira, landara-iztia izango dira eta orrelakoren bat eziña izan ezker, olerkigintza ta Basondo'ko Santimamiñe leizak.

Izlariak aukeratzen diardugu, baiña guztien baietza artu ez dogun ezker, urrengo illean agertuko dogu euren zerrendea.

Euskaldun guztiok, eta batez be Bilbao'tarrak, ez utsik emon aste oneri. Gauza jakingarriak dira eta izlariak jakitunak.

EUSKERAZALEAK

EUSKALERRIAN BAI, ABERTZALEAK EZ

Abertzaletasunean eta geure erriaren eskubide guztiak zaintzean, gure aberriak aurrera egin nai dau eta orretarako burruka sendoak egiten dira.

Baiña ondo dakigu, gure artean asko dirala kanpotik etorriak eta bertokoak izanik (au lotsagarria) aberriaren eta izkuntzaren aurka dagozanak.

Olakoi min emoten dautse aberriaren alde egiten dan danak eta eurak beti dagoz Madrid'era begira.

Jokabide orreik bizitasun berezia artu dabe aspaldion eta ortik sortu da Araba'ko U.A. alderdia. Bilbao'n be antzeko zerbait sortu dala diñoe.

Arabarren artean sarritan zomau dogu olako jokabidea. Zergaitik dan?

Errazoi bat, neure ustez, euskerea galdu izatea da. Gero, esan dagien euskereak ez daukala abertzaletasua-gaz zer-ikusirik!

Euskerea ez dakielako arabarrak lotsa-antzeko bat dauke eta ortik sortzen dira euren esaldiak: Zuek nortzuk zaree gu euskera ikastera beartzeko? Euskerea ez jakin arren, zuen besteko euskaldunak ba-gara!

Gure erantzuna erreza izaten da: Baiña nork edo noz beartu zaitue euskerea ikastera? Edo nok esan dau euskerea dakigulako zuek baiño euskaldunagoak garala?

Arabarrak, gaiñera, Euskadi'ren aldetik begirun aundia izan dabe, bear ba'da olako zerbait sortu daitekela uste izanik: Lege-Batzarrean, esaterako, eurak biztanlez asko gitxiago izan arren, beste eskualdeen beste ordezkari edo aldun daukez, eta Euskadi'ren Uriburua be bertan jarria da.

Baiña ori be ez dabe aintzat artzen. Barru-miña dagoanean, dana izaten da alperrik.

Antzeko zioakaitik alde egin eban Naparroa'k Jabetzadun Eusko Alkartetik.

Eta zer egin olako jokabideen aurrean?

Lenengo ta bein, abertzaletasun-bidean ez dogu atze -

rarik egin bear, eta ez euskerea zabaltzeko ta indartzeko alegiñetan be.

Baiña bai, bear ba'da, apur bat kontuz ibilli. Euskerea zabalduta ez dagon lurraldeetan, ez euskera utsa erabili, itzaltasuna izan. Sarritan larregi be bigunak izaten gara, baiña ez beti.

Dana dala, arlo onetan neurri egokiz jokatzera ez da gauza erreza. Ez da aitzu bear euren barru-miñak be arazoa ozpindu egiten dauala.

Gai onegaz arduratuta agertu jakun Lendakaria EUSKERAZAINTZA'ren izenean egin geuntzan ikustaldian.

Or daukagu, esaterako, lan-lekuak lege-giroko erakundeetan lortzeko, euskera jakitea eskatzea.

Guk ori ondo dagoala argi ikusten dogu eta geure eskubide bat da, gu euskaldun garanok, olako tokietan euskeraz berba egiteko eskubidea, baiña esandako jokabide orretara sartuta dagozanak ez dabe orrelan ikusten arazoa.

Guk geure eskubideak zaindu bear doguz, baiña bear dan bidea artu dagigun, al dala olakoak mindu barik izan daiten: Ez da gauza erreza!

Elebitasunaren arazoa be or sartzen jaku.

Batzar bat egiten dogunean eta eskubide osoagaz batzar orretara euskera ez dakienak etorten diranean, euskaldunak egoera onean gagoz, euskerea ta erdera ulertzen doguzalako, baiña eurak euskera egiten dogunean alboratuta ikusten dabe euren burua.

Gai geldiak diranean euskerea ta erdere banatzen doguz, baiña alkar-izketa eltzen danean, orduan jotzen da geiago erderara eta orrelan izan ezik, erdeldunak alboratuta sentitzen dira ulertzen ez dabelako. Eta eztabaida bero baten ez da erreza dana euskeratzea.

Egia esan, eurak be ez dabe alegin aundirik egiten, sarritan, euskerea ikasteko.

BAKE ETA POZ

(Teresa Deunarena)

Ba-dira arímak zorion billa
lurrean barrena dabiltzanak;
ez dabiltz billa, nire antzera,
oso-osorik aren jaube diranak.

Nire biotzean da loratzen,
zimeltzeu ez dan lore bat legez,
larrosa goiztar baten parekoa,
betiko xarma guri ta ederrez.

Zoriontsu naz! Ez dagit besterik
neure guramen betea ezik:
ez ete zoriontsu lurrean,
nor bere naimena egiñik?

Maite dot, pozik sufrimentua,
barre dagit eta negar batera,
esker onez dot neurtzen
arantza naiz lili zurizka.

Zeru oztña estaltzean
odei biurri ta baltz margorik,
poza doakit apurka estalduz,
lurreraíñojausi-azten dalarik.

Jainkoaren naimenean
dau nire bakeak atsedean bete;
alái bizi naz egun argian,
ekaitz-gauan danean legetxe.

Nire bake da eta nire poza
betikoz txiki-txiki gelditzea;
bertatik naz olan jagiten;
ba datorkit iñoiz jaustea.

Jesus'ek daust eskua artzen,
samurkiro daust estutzen,
neurea dala nik esatean,

neurea bai oso-osorik, samur
esanik, gordetzen jatanean,
milla biotz-eresi nik Ari
barne-gozorik kantatzean.

Negar-jario ba naz, ez dot nai
nire aitzak jakin dagienik,
Ai! Pozgarri jat sufritzean,
au ba-da loraz inguraturik.

Jasan, jasan negar-zizpuruge,
Jesus'i onek poz betea ekartzen;
pozez nago ni A irripar íkusiz,
nik biotza penaz asetzen.

Arima onak Ari irabazteko,
tai bage burruka bear nok:
au dot maitasun ordaintzea
bere maitez dautsozan zor-izpik
Zoriontsu ni Jesus'i ordaindu
al ba dautsodaz onako dirutan:
poz-alaizko diru-ordetan
arima onak eurrez biurketan.

Luzaroau gura dot bizi,
Zuk, Jauna, ori nai ba dozu;
naiz, ederrago, ba deritxazu,
Zeugaz nik gora egaz igo.

Maitasun onek, sua danak,
errez naroa ekin eta ekin;
bizi naiz zer daust ardura?
Zu maitatu! Auxe ni aintza urdin.

(Aita Onaindia'k euskeratuta)

IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtzen be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

— Ipuñiak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
— Ipuñiak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

— Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuñiaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKAR-

TEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14, 2.ª, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urtarrillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

- 1.ª 40.000 pezeta.
- 2.ª 30.000 pezeta.
- 3.ª 20.000 pezeta.
- 4.ª 10.000 pezeta.

— Ipuñiak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena

EUSKERAZALEAK

EUSKALERRIAREN BURUJABETZA

EDO ASKATASUNA

Buru jabetza edo askatasuna arazo bizi biurto jaku, zorionez, Europa-aldean, batez be laterri komunistetan, jazo diranak ikusi ondoren.

Lituania, Letonia ta Estonia edo Georgia edo Bosnia edo... euren buruen jabe izateko gai ba'dira edo esku-bidea ba'dabe orretarako, zergaitik ez bardin esan Kortzega edo Bretaña edo Euskalerrria, Kataluña ta Galitzia'ri buruz?

Mingarri izan jaku Aita Santuak Euskalerrri ta inguruetako Gotzaiñak artu dauzanean, "España aberria" aitatu izatea. Esaldi orrek bere elburua izango dau, naizta aspaldiko urteetan eta España-giroan, laterria ta aberria berbak sarritan, ia beti, nastauta erabilli izan.

Baiña zer pentsatzen dogu euskaldunok arazo oneri buruz? Nai ete dogu askatasun oso ori?

Benetan itaun erantzugarria! Eta itaun ori egin dau Amatiño'k ETB'ren lenengo katean, Zurekin Zuzenean deritxon ekiñaldiaren barruan. Entzugarria izan zan ekiñaldi orren zati ori. Berak esan eban lez ez da aiztu bear gero, erantzuten daben guztiak euskera dakienak dirala eta euskereak abertzaletasun zintzoa indartzen dauala. Antzeko itaunketa egin bearko litzake erdera egiten dan lurraldeetan be.

Ondorena zein izango litzaken? Ez bear ba'da ain bateratua, baiña lurralde orreitan ba asko dira abertza-leak, askatasun osoaren alde diranak.

Eta alderdi politikuetako jenteak zer uste ete dau?

Batzutan jokabidegaitik, beste batzutan epe laburrerako elburuak dirala-ta, gai orreri buruz be eztabaidak ikusten doguz, baiña barru-barruan benetan euskaldun diran alderdiak askatasun osoaren alde dagoz, ez ostera burua Madrid'en eta oiña emen dauken alderdiak.

Eta arazoa ez da laterri aukerea edo "autodeterminaziñoa", ori betetea eta orrek eskatzen dauan eraz bizi-

ten astea da itauna, eta askok esan eban lez, oraintxe orrelan biziten astea. Ze amets ederra?

Zein izan zan ba, euskaldunak arlo orretan agertu eben eritxia?

Ara zer diñon an izan zan eta Eusko Jaurlaritzaren ordezeko itza dauan Jose Arregi'k: "Eskalerrriko erritarrik geien-geienak burujabetzarako jokabideak sakontzea nai dabe, eta jabetza edo askatasun osoa nai dabenak eta bide orren aurka doazenak, kopuru bardin-antzeko dira".

Beste itaun bat be egin bear da arlo onetan: Autarkietara sartu leike, gu aberria garan ale ez, arazoa? Ez orixe. Aberria izatea ez da aukerapena, bagara edo ez gara. Autarkietara ezin sartu leike une onetan eguna dan ala ez arazoa. Eguna ba'da eguna da eta gaba ba'da gaba, autarkiak bata naiz bestea esan. Antzera da aberriaren arazoa: Euskaldunok aberria gara eta ori ez dago eztabaidatzerik. Naparroa Euskalerrria da eta ez dago eztabaidatzerik. Bardin Ipar-Euskalerrria.

Eztabaidatzen dana edo autarkietara sartu leitekena beste arazo au da: Gure aberri onek laterria izan bear dauan al beste laterri bateri lotuta irau bear dauan. Edo aberri bat izanik, laterri bi osotu daikeguzan.

Euskalerrria emen dago. Ori eztabaidatzerik ez dago. Eguna danean, gaba dala esatea litzake.

Baiña Aberriak ezaugarri batzuk ditu: Bere izkuntza, bere oiturak, bere jakintza, bere kondaira eta abar.

Benetako euskaldunak ez dau iñoz alboratu bear ezaugarri oneik indartzea ta bizkortzea. Ori ez egitea, aberria ukatzea litzake, zor aundi bat ez ordaintzea, aberri guztiak gizadiari dautsoen zorra, erriaren maitasunak eskatzen dauan ordaintzekoa.

O.'ek

GIZARTEA

KUBA, FIDEL ETA BERE LAGUNAK

Aspaldiko urteetan munduan izan dan albisterik gogoangarriena, Europa'ko sortaldean izan diran aldakuntzena da. Eta giro orretan Komunismoaren azkena edo azkenerantza doan bidea.

Komunismoaren eta aurrean daukagun Sozialismo edo gizarte-zaletasunaren azkena datorrela dirudian sasoi onetan, edo, gitxienez, Laterrietako Nagusitasuna indarrez artzeko elburua daukan komunismoaren azkena begien aurrean dagoala dirudianean, or daukagu Erdialdeko Ameriketako kasu bitxi bat.

Fidel Kastro'k asieran, bere iraultzea egin ebanean, ez eban ain argi agertzen bere jokabidearen Komnismo-giroa eta orrelan asko, atsipetuta, bere alde jarri ziran Kuba barria egiteko gogoaz, baiña gero Fidel'en benetako jokabidea ikusita, aurka jarri-bearrean aurkitu ziran.

Dana dala, espeteratuak asko izan arren, Fidel'ek odol-eriotza gogorkerizkoak egitetik naikoa ondo zaindu eban bere burua.

Jakiña da, komunistak nagusi izan diran laterrietan ekonomiak izan dauan beraka ikaragarria, orretan Rusia bera aurrerengo dala.

Eta Kuba'n zer? Jazo ete da olakorik?

Zori txarrez bai: Janariak eskuratzeko agiriak edo kartillak bear dira eta erbestean egin dabezan zorrak ordaintzeko ez dira gai.

Egia da orretan beste laterri batzuk egin dautsoen boikot edo uts-egitekk be bere bultzakadea izan dauala. Baiña an ekonomia geroago ta txarrago doa, janariak eta petrolio (arrorioa) geroago ta urriago eta Fidel'en etorkizuna oso illun ikusten da.

Eta zein dan gaur Fidel'en jokabidea?

Argi-argi agiri da ori. Ez dau itzi nai bere agintaritza. Ona emen ango alderdi komunistak egin dauan azkenengo Batzar Nagusian berak esana:

"Kuba'tar guztiak il-bearra gertatuko ba'litz be, ez dogu itziko sozialismoa".

Eta ona emen politika-arlorako berak esana: "Laterrian alderdi asko izatea, txarrikeri asko izatea da".

Ba-dira, orregaitiño, Kuba'ri edo ango egoerari lagundu nai dautsoenak be.

Oraintsu egin dau ara osterea Galizia'ko buru dan Fraga Iribarne'k eta pozez alkar besarkatu dira Fidel eta biak. España bera laguntzaille lez agertzen da.

Zelan izan daiteke ori? Zelan izan daiteke ain eskumatar eta komunismoaren arerio bizia dan Fraga eta Fidel orretaraiño alkartzea?

Politikaren ezkutukiak!

Ara joan dira, baita España'ko Gotzain Alkartearen izenean, Angel Sukia Madrid'en Gotzain dan Kardenal euskalduna ta bere lagunak.

Emen lojika edo burubide zuzenagoa agertzen da. Fidel'ek ez dau besarkatu Sukia Kardenala, baiña askatasuna itzi dautso antza, ango eleizak ikertzeko.

Zelako egoerea daukan Eleizeak Kuba'n?

Odolik ixuri barik, baiña Fidel'en, iraulketa onartu ez dabenak erbesteratuta eta bertan be erlejiñoa alboratzen dala.

Sukia Kardenalak Kuba'n kristiñauak aurrean erabilliak, jazartuak, dirala salatu dau.

Zelako etorkizuna izango dauan Fidel'en iraulketa orrek?

Azken txarra eta epe laburrean, zalantza barik. Onean berak egin nai ez dauana, demokrazira ta azoka askera sartzea, erriak txarrean lortuko dau.

MARTIN'ek

LARRAMENDI, MOGEL, ZAMAKOLA, ZARATE ETA GAURKOAK

"Deia" Egunkarian irakurri dogu M.A. idazlea dala idazpuru ori edo antzekoa daroan lana, eta auxe izan da lenengo burura etorri jakuna: Egundo'ko poza artuko eban gure Mikel Zarate'k idazpuru ori irakurteko aukera izan ba'leu. Bere ametsik gurena zan, izan be, olako idazle ospetsuen artean bere izena ikusi al izatea.

Dana dala, idaz-lanak berak dakarren elerti gaia jakin-garria dan ezker, bizkaieratu eta ZER'en irakurleentzat emen argitaratu egingo dogu.

"Manuel Larramendi, Juan Antonio Mogel, Joan Antonio Zamakola eta Mikel Zarate-ren bizitza ta lanen barria emoten da Eusko Jaurlaritzaren "Bidegilleak" bilduma'ko azken lau liburusketan.

Belaunaldi gazteak zarragoen barria izan dagien, argitaratzen dau Izkuntza-Politikarako Idazkaritzak, Joseba Intxausti'ren zuzendaritzapeau.

Manuel Larramendi (1690-1766) bizitza ta lanen barria, Andrés Alberdi'k eskintzen dauku. Juan Antonio Mogel (1745-1804) Xabier Altzibar'ek. 1758'an jaio zan Zamakola'k egin ebana, Roman Basurto ta Xabier Altzibar'ek argitzen daukue. Mikel Zarate (1933-1979) lezamarraren lanak, barriz, Joseba Butron'ek aititzen daukuz.

"Bidegilleak" bilduma ezaguna da lendik be, Orixe, Manuel Lekuona, Koldo Mitxelena ta abarren barria emonaz sortu zan-eta.

Liburutegietara, Ikastetxeetara ta abar zabaltzen dira. Gaiñera idazki laburrez eta argazkiz, era atsegiñean argi-

taratzen diran liburuska oneik, edozein euskaltzalek aukerari izan dagizan.

Orrelan, polito-polito, euskal elertiaren kondaira osotzen diardu Bidegilleak Bilduma'k.

Asmamenezko elertia eta saiaketa-girokoa urri agiri dira gure artean. Argitaldaria be ez dabe olakoak argitaratzeko gogo aundirik, gitxi saltzen diralako-edo.

Dana dala, ba-dira olako giroan, diran liburuak be gure liburutegietan...

Itzulpenak argitaratzen saiatzen da Aita Santi Onaindia, eta aspaldion ainbat liburu argitaratu dau Kurutzeko Donibane'k idatziak.

Elebarrien munduan, Urtero argitaratzen dau elebarri luze ta mamintsuren bat Zubiri'tar Iñaki'k. Bide orretatik doaz Zubikarai'tar Augustin'en liburuak be, urtero baten bat, eta gaiñera errien kondaira agertzen dabenak.

Olerkarien munduan, oraintsu agertua dogu Solozabal'dar Paulin'en liburu.

Kondaira-saillean eta gipuzkoeraz ale ederretan argitaratu dau Latiegi'tar Bixente'k ELeizearen Kondaira.

Izadi-arloan, sakona ta zeatza da Jaka-Kortajarena'ren Erleai buruzko liburu, baita idazle beraren oroitzapenak gogoratzen daukuzana.

Eta laster agertzeko diran olako lan asko dira gure irarkoletan. Elertiaren urritasuna ugaria biurtu daiten ale-giña egiten da gaurko euskaldunen artean.

GAMIZ'ek



AITA LINO AKESOLO, EUSKAL IDAZLE (1911-1991)

Dima aitz-punta ugariz lez betea dogu auzunez eta baserriz; onako bat Oba da, Asmutilpean nasai. Zoaz arantza gaur-arratsaldez apartigozoa egiten askotxo doazan legez, eta arako bidean, zearka-zearka aldatz gorakoan, emaldi ezker itxiz, pizkat gorago ekiñik, ango eleizaldea baiño len, ezkerretik sakon-unetxoan daukazu Akesolo sendiaren baserria, oraintsu barriztua. Toki zoragarria, benetan euskalduna. Nun jaiokak, barriz, zentzu itzala dau gure bizitzan.

LEN-İKASKETAK

Gero sortetxetik bertan auzo-eskola eukan arren, arek plazara jatxi bearra eukan, eguraldi onez naiz txarrez. Eskola-zale izugarria beti, eleiz-gizon izan nairik. Eta ni, 1921'an, abenduaren 4'an Larraratu nintzaneko, emen zan bera aste bete lez aurrerago etorrira.

Ondoren alkarregaz ibilli giñan karrera guztian. Ikasteari sendo emona zan ordutik. Gu mendizale, kirolzale giñala, ari liburuak ekartsoen atsegiña. Gaztetan be etzan drogazale, bake-tsu ta zentzun aundiko baiño: olan jarraitu eban bizitza guztian, irakurri eta idazteak ase-betea. Bere geroko liburuetan daukagu aren bizimoduaren frutu ugaria, iñun daiteken euskaldunena.

Ikas-bitartean asiak idazten, baita Donosti'ko "Euskal Enalean" be, aldi berean ekiñak gara luma lanean, euskerazkoan ain zuzen bere. Bion euskal lanak agertzen dira urte bardiñean, aldizkari orretan. Larrea'ko len-ikasketa, nobiziadu eta gaiñerakoak amaitukoan, Markiña'n eta Gasteiz'en Orobat; 1930'an Zervantes'en Nobela-itzulpena iragarri eban aldizkari orrek. Aita Lino'k "Agure Kezkatia" eta nik "Jitanatxoa" itzuli genduzan, sari bana lorturik.

Gizona setaz zelakoa dan len-unetik jakitea mesedegarri ei jaku, batez be idazle bat; alan aren esanak zeatzago ulertzen ei ditugu.

Akesolo, senditik antza, bere eritxikoa zan, etzan gauza bere ustez oker egoana jasateko, eta au laster erabilen txibita darda gaiñean bizibizi. Or adibidez Koldo Mitxelena, Luis Villasante, baita ni be, euskal literatura idaztean utsik ba'nengian. Urria zan goralpenetan, zorrotza eritxiz.

1989'an argitara emondako aren "Idazlan Guztiak" liburu bietatik dakusgunez, gai ugari, geienik euskaldun gaiak, jorratu zitun, astitsu ta egokion zentzun zabalez. Etzan kanpora begira bizi, etxeko soloetara baiño. Antxe eukan naikoa jorrai-usa eta lan-barruti. Iñoizka ortik aldendu arren, orixe bere ardatz begiko. Egiatzko euskal idazleak orrela dagi beti.

EUSKAL IDAZLEAK

Asko irakurriz beti be geureetara salto egiñik, konta ezin-ala euskal idazlez, lengoz eta oraingoz arduratu zan. Zaarrak jakozan bikaiñago, sopita, esan bitxi eta atsotitz garrantzitsuagoak aurkitzen zitulako, oneik danok, gerorako, bere lanetarako apaingarri izango jakozala-ta, ingurrazti berezietan jarten ebazan. Lan onurakorra berau, euskal idazle guztiok egin bear geunkana.

XVI'garren gizaldian asita, mendez mende, zeatz-meatz XX'rarte, ez euskun artikulua gitxi osotu bere asti-uneetan; lenengo euskerazko liburutik (Bernart Etxepara'netik asi eta Muxika'ko Imanol Enbeita'raiño, tartean sarturik Vinson, Barrutia, Kardaberaz, Mogel'darrak, Astarloa, Frai Bartolome, Jose Pablo Ulibarri, Arrue, Luis Iza, Aita Babaki, Azkue Aita-Semeak, Unamuno, Aita Ipolito, Atutxa eta besteak. Bedar on guztia jaso oi eban aren lumeak.

Onan naiz alan euskal idazlen ixuritako izerdiak etziran arentzat arbuigarri; beraz kutxatu egin bear ziran, galdu ez eitezana, olantxe euskal kantak, poesiak, idatzi puskak.

LIBURUAK

Ez dakit zenbat urtetan, baiña dakidana de Aita Lino'k Madrid'en egin osotu ebala bere idazti-karrera, orretan be bere liburu zaletasun bizia erakutsirik. Euskal liburutegi oso-ugaria eukan Begoña'n, berak urteetan ardura guztiz pillatu eta zaindua; idazti barri naiz erraru bat agertzen ba'zan, beingoan zan aren eskuetan, zein erderaz zein euskeraz. Bere lan eta lo-gela ondoan eukan liburutegia.

Euskerazko liburu bat erosi-ala irakurriten eban, baita laster lantxoren bat aretzaz idatzi be, alik eta zuzenen idatzi be. Iñoiz utsik edo okerrrik egin ezkeru, ba-ekian alik eta ariñen zuzentzen; ba-dira onakoak aren idatzietan. Bakoitxari berea emotea zuzena zala eritxon. Bein Bibli-itzulpenak zirala-ta, osorik egia etzan zerbait adierazo ebalakoan, Aita Polikarpo'renari buruz au diño:

"Polikarpo Iraizozko aita kaputxiñoari berea emon edo biurtu nai diot lerro oien bidez. "Jaunaren Deia" aldizkarian mende ontako gure Bibli-itzultzaitzallee buruz azaldu berri dan artikuluan ez det zeatzegi idatzi kaputxino orrek atera zuen "Yesukristo gure Yaunaren Bizia" izeneko liburuari buruz. Egia da 1932'an egiña duela itzaurrea, egia 1934' an atera zala argitara, liburu antzean. Baiña liburu ori leenagotik egiña zuen egilleak. Beronek ona zer dion itzaurrean eta ez aaztu 1932-ko Gabonillean ari dala ori idazten). Orain dirala zortzi urte asi genuen lan au, eta geroztik illeroko orritxo batean puskeka argitaratu etorri gera. Orain, ordea, guzia liburu batean argitarazten dugu".

Eta Aita Lino'k: "Nik xeetasun au aaztu det, eta ortik sortu da nire okerra". Polikarpo bera be etzan argiegi ibilli pasarte ontan. Ortik aldatzaillearen okerra; onek zuzendu nai dauana. Bakotxari berea, eta bera egitia zan bezela, besteak be, euskal idazleak egizale benetako nai zituan.

KONDAIRA-LANAK

Leena iragarri, aurretikoak egiñaz janaritu; dimostarrari eder jakona. Arek egiñiko kondaira

eta biografi-lanak atsegingarriak dira, eta asko. Teresa deuna, Ander Poza, Soloeta abadea, Zirilo Arzubiaga, Pedro Madariaga, Aita Batiz, euskaldunak eta gaskoiñak, Aezkoako eguberriak, gure Xabier, Baroja eta Lixieux-ko Teresa, Naparroa eta Trebiño, Bizkaiko seme bat altaretan, Rafaela Ibarra zoriondun, Martin Azpilkueta, eta besteak.

"Jose Joakin Arteaga Mixiolari andia (1878-1926)" deritxon artikuluan onan daragoio: "Nor dogu Jose Joakin Arteaga au? Aita Santuak karmeldar euskaldunen ardurapean 1918'an ipiñi eban Urabako (Colombiako) mixioaren buru izateko izentau eban praillea, naparra, Lizarra'ko semea (ez ain zuzen esaten dan lez, Iruñekoa). Urabako lurraldera 1919, eldu zan eta an zazpi urte baiño egin ez zituan arren, itzalezko lana egin eban bertan: eleizak, eskolak (ume-eskolak eta lan-eskolak, aldizkariak sortu, bearezko ziran bide barriak urratu, mixio aretako eleiz-edestia aztertu eta idatzi, eta abar. Bizi zala, Colombiako "Academia de la Historia" dalakoak bere bazkide egin eban eta 48 urte zituala adiñik ederrenean il zanean, Urabak eta Colombiako agintari eta kultur erakundeak ikusgarritzko omenaldiak egin eutsoezan" (Karmel, 1988). Olantxe beste ainbeste.

LIBURUEN BARRI-EMOILLE

Esan dogunez, liburu barririk azaltzen bazan, laster etorren Aita Lino'ren eskuetara. Eta laster eban idazkortza atz-artean dardar, aren barri emoteko; astitsu irakurri eta berari ondo eritxona esan, bakoitxari bere ustez merezi ebana emonik. Eta eritxi-emote ori etzan iñolaz be astoaren gaberdiko eztula.

Beste bein "Elorri" euskal olerki liburu eldu zan arengana. Eta bertatik `Basabil" izenpean agertu euskun "Olerti" aldizkarian. Onela idazten dau: "Antxiña eztala, Aita Mitxelena etorri zan Arantzazu'ra kantari bere "Arantzazu" poema sendoaz; eta aren otsak ixildu baiño len, ona nun yatorkun Aita Gandiaga ameskabi ta eder-leku kantagaitzat arturik, beste poema bat eskintzen. Eta benetan ames ederrrik eragin eta

ELERTIA

kantu eta biotz berogarririk ondu-azo deutsoz leku orrek olerkari gazte oni. Egilleak jarri dau-tsen izenez, "poematxoak" dira. Baiña poema-txuok, guztiak batean arturik, poema andiagoa bat osatzen dabela esan lei. Eta Arantzazu'n sortu da ta Arantzazu dau kanta gai. Olerkariaren biotz-begietako Arantzazu daukagu emen; bertako Amaren magalpeko praille-bizitza, dana olerkariak bizi izan dauan lez, Arantzazu'k bere biotzean "sortu dituan dardar eta barru ikararen otsa" entzun-azo nai dausku".

Jose Migel Barandiaran nor dogun idazten dau; jakitun eta euskaldun, abade ta errigille lez azterturik, zentzun aundiko zerak diñoskuz ari buruz. "Jakitunaren bidea aldatz-gorakoa dala, ez dala ez erreza? Barandiaran jaunaren bizitza au irakurri dagianak, ez dau ukatuko, ez dau ezetzik esango. Amaika izerdi ixuritze, otz-bero, buru-bustialdi, ikusi bear izan dau an eta emen euskal mendietan euskal aztarnen billa, euskal esaera, siñiskera eta abar batzen! Zorionez, alan bear eta, Jaungoikoak osasun on baten jabe egin dausku bera eta, burua argi eta gorputza zal eta giartsu, eldu da bere adin batera".

Ganoraz diarduan kritikalarri onak, itz laburrez adierazo oi dau nai dauana.

EGITI PORROKATU

Idaztietan ez-eze bizi-eginetan be egia ikusi gura eban dardarti. Gerrak oraindiño gazte zala arrapatu eban, eta eusko-gudarien kapellau mendietan ibilli zan areikaz eta kartzeletan egon zan ainbat urtez. Eta gero be, ez eutsoen itxi urteetan euskal errira nasai etorten. Ba-ekian, beraz, guk eta gutarrak jasatako guda gorriaren barri zeatza.

Orduko irabazleak, baiña, gau ta egun makiña bat guzur zabal-azo eben bazterretan, euren buruak zuritu nairik. Eta Lino'k onela: "Gezur zitala, ezin zitalagoa, salatu bearren gara (Karmel'en, 1986). Oraintsu Euskalerrian idatzia da: 1936'ko gerratean ekarri zutenek illobira biali zituzten apaiz euskaldunak eskuetan armak zitutela aurrean jarri zitzaizkielako il zituztela. Nor, eta urte artean berean mundura

etorritako idazle eta irakasle batek bota du gezur iguingarri ori: "Durante la guerra, los nacionales fusilaron a 14 sacerdotes vascos, que se les opusieron con las armas en la mano". Olaxe, labur-laburrik, soil-soillik idatzi du, lerro bat eta erdi ozta-ozta egiten duten itzekin. Berak esan dau, eta kito".

Jarraituz egi biribil-biribillak dakaz egi-zaleak guzur biribil orren aurka, olako zitalkeriak zabaldu zituanaren izena be jarririk. Ain argi ta garbi ipiñi nai dau guzur au, Euskalerririk urtenik mundu guztian edatua izan dalako.

Onaiñoakoaz naiko dala deritxot Aita Akesolo nolako ta noraiñoako idazlea zan konturatzeke: punterengoa eta giarra, egitia ta zeatza; gure izkuntza sakonik ekiana, ari naiz oni laguntzeko beti gertu geunkana; edozein euskal idazleen akatsak maillupean erabilteko lotsarik ezagutzen ez ebana. Orixe zan bere jita.

Aurten, irailaren 17'an zendu zan, 80 urte beteta. Begoña'ko karmel-eleizan ospatu ziran, arratsalde, aren illetak, Euskalerrri osoko jentez, zar eta gazte, apaiz, lekaide-lekaimez, erakunde guztietako gonburu oso egoala. Galdu genduan euskal idazle trebe ta gogoangarri baten illetak norentzat ez sentikor?

Egun ortan eta gero Euskalerrriko izparringirik geienak Deia, El Diario Vasco, Diario de Navarra, Egin, Egunkari eta besteak samin-lan bipillak ekarri ebezan. Eta ekarriko dabez.

Lagun begigu zerutik bere lanean aurrera jokatzen.

AITA ONAINDIA



DROGEA

Zori txarrez, urte batzuk dirala, eldu zan gure lurralde onetara drogearen arazo larria eta drogeagaz batera etorri jakuz beste arazo asko: Etxeetan senideen, batez be guraso ta seme-alaben asarre biziak, urtenbiderik aurkitu-eziñak, alkar-izketea zapuztuteak, eralketa ikaragarriak, eta abar. Eta etxetik kanpora ainbeste lapurreta, ilketa, zemai, auzokideen arteko asarre, zikinke-riak ugari... Etxean eta kanpoan sida gaisoaren bildurra eta gaiso-etxeetan ainbeste neke ta eriotza.

Eta laterri artean be sortzen dauz arazoak lo-bedarraren ondoren oneik: Iñoren osasuna galtzen dala eskuratzen diran dirutza aundiak, dirutza orreik zuritzeko bankuak egiten dabezan jokoak, salerozketarako sortzen diran taldeen arteko ilketak, lo-landara ori soloetan daukenak, beste bizibide bat aurkitzearen arazoa, arlo orretan errudun diranak laterri batetik bestera ateratearen tirabirak...

Europa osoan eta Europa'tik kanpora beste toki askotan drogeak arazo larriak sortzen dauz: Askatasunaren izenean, drogea artzea aske itzi ala ez? Banaka artzea errubakotzak artu? Banaka artu arren, jente-aurrean artzen danean, zer?

Udalerriak be asita dagoz oneri buruz ardurak artzen eta gaur emen Barakaldo'ri buruz irakurri doguzan barri batzuk agertu ta aztertuko doguz. Barakaldo da Bizkaia'n erri gitxik lez, drogea gurputzera sartzeko diran ziztakiñak batzen dauzan udalerrri bat.

Oraintsu Osasunaz eta Gauza-Zaletasunaz arduratzen diran udal-ziñegotziak olako ziztakiñak batu dabez erri-barruan eta lan ori egiteko

langille berezituak daukez. Urte osoa da, lan ori egiten asi zirala eta joan dan udako ille bitan asko ugaritu ei dira ziztakin edo jeringilla orreik: illero milla ta zazpireun inguru.

Ziztakin guztiak pillatzen dira uriburutik kanpoan dagoan toki baten.

Geien agertzen diran lekuak Gorostiza Kiroldegiaren ondoan dan Mesperutza mendizuloa, antxiñako abere-iltegia, Lutxana'ko zelaia eta Beurko-zar deritxon tokia ei dira.

Dagonillean eta iraillean batze orreik ondoren ugariagoa izan dabe eta egun baten 295 ziztakin batu dabez toki bakar baten, Mezperutza mendizuloan.

Eta antza dagoanez, erri orretan diran eroina-zaleak askoz geiago ei dira. Arazo bildurgarria, benetan. Eta etorkizun illun-illuna iragarten dauan arazoa.

Beste alde batetik, zalekeri ori alboratu nai dabenak, laguntza-billa asten dira, batzuk beintzak, euren buruak sare orretatik kanpoan barriro ikusteko itxaropenaz, baiña zenbat olako etxe osagille, bear-izan ori dala-ta, dirutza ederrak irabazten diardunak!

Zori onez ba-dira arlo orretan zuzen jokatzen daben taldeak be. Bat aitatzekotan Gizakia Elburu edo Proyecto Hombre, aitatuko genduke.

Olako lekuetan ainbat drogazale osatzen dira. Zorionekoak ori lortzen dabenak eta euren etxe-koak!

Olako arazoak larria biurtzen dabe gaurko gure munduaren egoerea.

M.O.'ek

GOTZAIN EUSKALDUNEN ALKARTEA



Gogoratu dagigun kondaira apur bat Euskalerriko Eleizbarrutiai buruz eta ortik aterako dogu argitasuna Euskalerriko Eleizbarrutien eta Gotzaiñen Alkartea argitzeko.

Berrogei ta bi urte dira Gasteiz'ko eleizbarruti aundia iru zati egin zala eta orduan be izan ziran gure Euskalerraren aurkako jokoak, ugariak eta biziak: Eleizbarrutiak iru zati egin ezkeru Gasteiz'ko Seminarioaren eta Eleizbarruti osoaren indarra kenduko ebela uste eben.

Baiña ekintza orretan euren aurka sortu zan jokabide bat: Bizkaia, Araba ta Gipuzkoa Naparroa'gaz bat egin ezkeru, len baiño batasun aundiagoa eta sendoagoa sortu zeitekean ortik, eta euskaldunai indarra kentzeko asmoz, abertzaletasunari bideak zarratzeko gurariz, urtenbide baragarri bat bururatu jaken. Bururatu eta bete be bai: Eleizbarrutien eta Gotzaiñen alkarre bitan banatu sortu-barri ziran goterki orreik: Bilbao ta Gasteiz Burgos'ekoan alkartuko ziran eta Gipuzkoa'koak Iruña'gaz osotuko eban alkarrea.

Erabagi ori ez zala egokia errez ikusteko gauzea zan, politikeak begiak itsututa ez eukazan edozeiñek ikustekoa, baiña...

Orain, ostera, gauzak euren bidera eroatea nai danean, Iruña' gaz alkartuta Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba ikustea nai danean, ara zer diñoen: Ori dala politika-jokoa! Ez ete dira gero, lengo politika-joko zikiña egin ebanak eurak?

Naparroak bere Erri-giroko alkarrea, berak baka-rrik sortu izatea izan, zan eginbide onentzat oztoporik aundiena, eta gaur be orretan dago kakoa.

Baiña eleizako arazoetan politikarik sartu nai ez ba'da, Euskalerrri osoak, Naparroa ta Iparralde barruan dirala, euki bear leuke bere Eleizbarrutien eta Gotzaiñen alkarrea.

Zergaitik ori?

Alkarre orreik sortzeko dan zioa ez da besterik alkartzen diran eleizbarrutiak antzeko arazoak eukitea baiño, eta antzeko arazoak daukezan eleizbarrutiak, eleizbarruti euskaldunak dira. Orduan, zergaitik alkarre ez? Ez alkartzeko ez dago beste ziorik, Euskalerrriaren arerio diranen politika-jokoa baiño.

Naparroa, Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba'ko Eleizbarrutiak eta Gotzaiñak, naizta Alkarre bakarria izan ez, sarritan alkartzen dira batera daukezan arazoak aztertzeko, eta Noizbeinka olako batzarretan izaten dira Baiona'ko Gotzaiña eta bere ordezkaria be. Eta ori beti artu da eleiz-giroan jokabide zuzen lez.

Gogoratu dagigun guztiz ezaguna dan arazo bat: Liturjia'ko liburuak euskeratzearena. Lana batera egin zan eta itzulpenak Erroma'ra aurkeztu ziran, al dan neurrian Iparraldekoak eta Egoaldekoak batera jokatzera eskatu eben, euskerara itzulpen bi egin eta biak onartu-bearra izan ez daiten. Berezko jokabidea da ori.

LANDA BARRI

JUAN GURUTZEKOA, OLERKARI

Karmeldar santu aundi au Ubeda' n il zanetik lareun urte dirala-ta, nik argitaratu neban "Donibane Gurutz, olerkari" liburuan Jainko-zale olerki-zale errime onen oler-lan guztiak, euskeraz biurturik agertzen dira.

Onela idatzi neban "Olerkiak" saillean: "Jainkoaren billa, berau bait dau guretzat jakituri bakarra. Labur bizi gara ta epe onetan gora jo bear, geure Egilleagana. Urrundu eztabaida ta burrukatik, txar ordeaz ona arindu, ez emon pozik barrulerai, eta aaztu-lezara bota eurok. Or jakituri bikaiña, Don:

Jainko billa beti, gurari bizitan. Ikasle zala, eta geroago, antza danez, ainbat erritar olerki ta bertsoz eban, Boskan eta Garzilaso batez be. Egin zituan erromantzetatik agiri da erri-poesiaren teknikan ikasia zala; 14 olerki-lan ditu guztirik, eta lau bat izan ezik, beste danak erromantzeak, batzuk Toledo'ko kartzelan onduak, "Super flumida Babilonis" legez; guzti ontan agiri da gure olerkariaren teknika, izkuntza aberatsa ta trebetasuna".

Jainkoa ikusteaz mindurik dagoan arimearen koplak dozuz urrengo zazpi estrofetako oneik be.

Neu bizi ezta bizi naz,
eta alako ustea izanik,
ilter nago ezin illik,

Ni ez naz neugan bizi,
ta Jainko bage ezin naz bizi;
A bage eta ni bagarik,
bizitza au, zer daiteke?
Milla aldiz litzakit iltea,
bizia bera ditxarot,
ilter nago ezin illik.

Nik bizi dodan bizi au
bizia faltatzea,
Zurekin bizi artiño;
ta beti ilten joatea;
adi ene Jaun, esana,
ez dot gura bizitza au,
ilter nago ezin illik.

Zugandik urrin egonik,
zer bizi euki dagiket,
iñoiz ikusi ez dodan
iltea eroan baiño?
Erruki dakit neugaitik,
ozt-oztan iraun dodala,
ilter nago ezin illik.

Uretik kanpo arraiñak
ba-dautzu aringarririk,
sufritzen dauan erioan
iltea lortzen daularik
zer erio nire bizi
samintsu onen bardiñik,
zenbat bizi ainbat illik?

Ken naizu erio ontatik,
ene Jaun, t'eidazu bizi;
lakio ain gogor ontan
ez nagizula, ez, euki;
Zu ikus-miñez nago miñez,
ta nire miña aundi baita,
ilter nago ezin illez.

Min dot orain neure iltea,
ta bizia negartuko
neure obenak eutsia
tinko daukadan arte.

Noiz izango, ene Jainko!,
egiaz esatea nik:
bizi naz orain il barik?

Onalaxe dogu Juan Gurutzekoa. Olerkari egiaz aundi. Il zanetik lareun urte joanak izan arren, lirikan aren pareko olerkaririk agertu ez dala.

ALBORATZEA ETA JITANUAK

Euskalerrriaren antxiñatik gagoz oituta jitanuakaz artu-emonak izaten, baiña aspaldion arazo au sakonagoa ta zorrotzagoa biurtu jaku, gure erri batzutan eta urriñagoan be bai.

Ondo dakigu jitanuak beste enda batekoak dirana, beste oitura batzuk daukezala eta beste jakintza bat dala eurena. Eta alde orretatik itzaltasunez begiratu bear dau-tsegu, baita euren oiturak, izkuntza, jakintza ta abar zain-zen eta indartzen lagundu be.

Dana dala, ez da gauza erreza izaten jitanuak eta eus-kalduuak alkarren artean ondo konpontzea. Arazoa argi-tzeko esan dagigun, etxe baten alabea jitanu bategaz mai-teminduko ba'litz, zein izango litzake guraso euskaldu-nen erantzukizuna? Ikusi doguz olako ta antzeko kasu garratzak.

Endakeria ete da ori ala arazo sakonago batzuk ete dagoz or?

Endakeria ba'litz be, ez beintzat endakeri orokorra. Egunero ikusten dogun gauzea da euskaldunak eta erdel-dunak alkarregaz ezkontzea eta artu-emonetan bizi izatea. Iñoz uste izaten dogu orretan euskaldunak lar bigunegiak garala be.

Zergaitik uste ori?

Euskalerrrian bizi izan arren, erdelduna euskaldundu bearrean, euskalduna erdelduntzen dalako. Eta ori erria iltera joateko bidea da, "jenozidio" edo enda-iltetari laguntza emotea.

Endakeri orokorra ez da jitanuak eta euskaldunak alkar ondo ez artzearen zioa. Zein orduan?

Zalantza barik, mundu guztiko erriak alkar ondo artze-ko, oiñarri bardin bat bear dabe, esaterako bakoitzaren ja-betzak itzaltasunaz begiratzeara. Eta arlo onetan jitanuak oillo-lapur lez eta iñorena norberaganatzen zale lez artu doguz. Ez dirala guztiak orrelakoak? Egia da, baiña oitura ori zabal be zabal ibilli dala euren artean, ez dogu ukatuko.

Ori baiña arazo gogorragoa da aspaldion erri askotan agertzen dana: Jitanuak izaten dirala auzoetara drogea ekarten dabenak. Eta nok ez daki ortik zelako ondamen-

dia datorren eta zelako asarre biziak sortzen diran sendien barruan?

Gaiñera, euren bizibiderako bear daben lanera sartzen be, geienetan ez dira izaten zaleak. Orregaitik egin bear lapurretan eta euren salerosketan sarritan ezarten dabezan atsipenak, orregaitik, bear ba'da, droga-saltzera sartu bear, bearrezkoa daben dirua aterateko.

Ez da ba endakeria, beste barik, alkartzeara au eragozten dauana, jitanuak ez dira alboratzen beste enda batekoak diralako, lapurrak, iruzurtzailleak eta drogabidera sartuak dirala uste dalako baiña.

Egia da, ori batzuren gaisoa guztiai ezartea dala, baiña arazoa, sakona ta benetakoa orretan dago, ez endakerian.

Eta azterketa ori egin ondoren, zein da urtenbidea?

Lenengo bear dana, jitanuak gizarterako ezitea da: Oiñarriko ikasketa, eta lanbidezko eziketa gitxienez.

Baiña geienetan euren umeak eta gazteak ez dabe nai izaten olakori. Eta gurasoak?

Geure arazoa be ba-da, ori lortzeko bide barriak eta egokiak billatzea.

Eta benetako maitasuna ba'dautsegu, lortuko dogu ori, zalantza barik.

Beste arazo bat be ba-dago emen.

Guk euskaldunok geure jakintza ta oiturak indartzen alegindu bear dogu, eta errazoi bardiñakaitik, jitanuen jakintza ta izaera berezia, euren oiturak indartzen alegin-du bear gara. Geutzat nai diguna eurentzat be nai izan bear dogu.

Eurai jakituria emoteak ez dau esan gura euren jaintza zapuztu egin bear dogula. Orduan geu be enda-iltzaille, jenozida, biurtuko gitzakez: Eurak jakintza lortzean, euren daben izaera zuzena ez dabe galdu bear: Oiturak, izkuntza, izakera... Al Eta ori ta guzti be, oraindiño aberriak bear dauan lurra lortu barik geratzen dira, munduan ebiltzazan Juda'tarrak egozan antzera.

GAMIZ' ek

IPAR-AMERIKETAN ARTZAINAK

Eun eta berrogei ta amar urte díra lenengo euskaldunak artzain izateko Ipar Ameriketara joan zirala. Ainbat milla gazteri zabaldu jaken bidea, lurralde zabal areitan bizitokia emonda.

Lan ori latz eta gogorra ei zan eta euskaldunak baiño bes-terik ez ei zan iñor gai zeregin ori beteteko. Eurak euken almena, bakartada aundi aretan aldi luzeetan bizi izateko. Orregaitik, Amerikarrak pozik artu ebezan artzain euskaldunak, koloni-antzera an bizi izateko, eta itzaltasuna ta esker ona erakutsi eutsezan. Euskaldunak be zintzo erantzun eben, ameriketarrek eurak autortzen dabenez.

Euskaldun dan artzainia Laterri Batuetan ezaugarri edo sinbolo biurtu da.

Orain urte bi dirala, irailaren 3'an, egin zan Reno'n Artzainari eskiñitako irudi baten asiera-ospakizuna. Irudiak 350.000 dolar balio ebazan.

Nok asmaurikoa zan irudi ori?

Orain bost urte dirala, Zengotita-Bengo'tar Erramon, ameriketan bizi zan durangarrak, asmau eban Artzain euskaldunaren gomutaki izango zan irudi bat ezartea. Lenengotan asmo ori ez zan onartu, baiña asmatzaillea iraunkorra izan zan eta bere ondoren ona lortu be bai.

Lenengo, orretarako batzorde bat sortu eban, idazki bat argitaratu, asmo au aurrera eroatea eskatu, Ardantza Lendakariari, baíta Nebada, Idaho ta Kalifornia'ko agintari nagusiai be barria bialdu eutsen.

Idazki onen elburua, asmo ori toki ezbaridinetan ezagutu eraztea zan.

Beingoan artu eban indarra burubide onek Ameriketara, Euskadi'ko iparraldean, Naparroan eta Jabetzadun Alkarteko iru lurraldeetan eta dirua batu zan asmo ori beteteko.

Laguntzaren baietza artu-ondoren, irudigilleai norgeiagora dei egin eutsen eta ertilari euskaldun eta ameriketarrek ekarri ebezan euren irudiak eta epai-maikoak Nestor Basterretxearena onartu eben: Giza-frudiaren ondoan beste mailla baten irudigintza bera eta beste gai egoki batzuk agertzen dira.

Basterretxea ertilariak bere erti-lanak barruan eukan burubidea agertu eban.

Orain irakurleak, bear ba da, bere artean esango dau: Iparrameriketara joan ziranak eta joaten diranak, etorten ete dira barriro Euskalerrira?

Baten batzuk etorten dira, baiña ez asko.

Arlo onetan ara zer diñoskun Lasalt'ek: Nire aita eta aiti-ta batera etorri ziran euren antxiñako baserrira, ikustaldi bat egitera. Aitari emen geratzeko esan eutsonean, ezin erantzun izan eban baietz. Orain ez dago emen nire etxerik —esan eban— nire etxea Nebada'n dago.

LETONA'k

LAUGARREN "TXOMIN AGIRRE" IPUIN SARIKETA

BETE BEARREKO ARAUAK

- 1.— Sariqueta onetara aurkeztuko diran lanak, euskeraz idatzita izan bearke dabe. Bakoitzak gura dauan gaiatzaz, baiña norberak asmatutakoa ta ez beste izkuntzan batetik euskeratua.
- 2.— Eskuz nai idaz-gailluz idatzita, itz garbi, ulerkorra, ta lerrorik lerrora bitarte egokiaz.
- 3.— Idazkiak aurkezteko epea, Abenduaren 15 azken eguna izango da. Zuzenbide onetara bialdu.
ERREKALDEKO LAGUN ARTEA KULTUR TALDEA
General Salazar 4-1
48012 BILBAO
- 4.— Ipuin sariqueta au, mailla bitan izango da.
LENENGO MAILLA.— 13 urtetik berakoentzat
SARIAK
Lenengoa 7.000,— Pts.
Bigarrena 4.000,— Pts.
Urrengo 25'entzat 2.000,— Pts.

LUZEERA.— Orri oso bat gitxienez.

BIGARREN MAILA.— 14 urte goragoentzat.

SARIAK

Lenengoa 10.000,— Pts.

Bigarrena 6.000,— Pts.

Urrengo 25'entzat 2.000,— Pts.

LUZEERA.— Orri oso bi gitxienez.

Idazkien luzeera, sariak banatzean epai-maikoak kontuan izango dabe.

BIZKAIERAZ. Euskalki onetan idatzitako lan guztiak sari berezia izango dabe.

6. Aurkeztutako idaz-lan guztiak sarituak izango dira.

7. Epai-maikoen erabagiak aldatu-eziñekoak izango dira. Sari banatzea Urtarrillaren 2an gure egoitzan izango da.

General Salazar 4-1

Bilbon.

LANGINTZAKO BIR-EGOKITZEA

Euskalerriko langintza larrialdetako aundi baten aurkitzen da, langintzaren bir-egokitzea egin bear dalako. Lentuago be izan dira arazoak arlo orretan eta orain barriro.

Arazo orren lenengo iturri nagusia, lanerako tresnak zarrak eta alboratu-bearrekoak izatea da. Eta tramankulu barriak ekarri ezker, esku-bearra geiena tresna orreik egiten dabe eta lengo langilleak geiegi dira. Orregaitik langille asko euren lan-lekuetatik atera egin bear. Orra or arazo mingarria: Lan-toki barriak aurkitzea gatxa izaten da eta langilleak eurak be urteetan aurreratuak diranean, gatxago lantoki barria aurkitze ori.

Arazo ori larriago egin dauskuna, Europa'ra sartu-bearra da.

Europa'n alde batetik burdin-langintza naikoa eta ona dago, eta beste alde batetik gure burdingintza urrin dago arein ontasun-maillatik.

Burdingintza-saillean Euskalerrria izan da ondoren geien ateraten izan dauana eta orregaitik dator larrialdi au biziago gure lurraldea.

Bir-egokitze orrek dakarren lenengo ondorena, lanik-eza dogu ba eta datorren lanik-ez orrek gure lantegi bat-zutako langilleak urduri jarri dauz.

Kaleratze gogorrak egin dira eta egiten dira, langilleen ondo-eza agertzeko.

Olako eragiñetan beti sartzen dira sindikatoak, eta ondo egiña da, sindikatoen lenengoetariko zeregiña dala-ko langilleen lan-lekuak zaintzea.

Arazo au oraindiño biziago jarriko dala esan geinke.

x**

Bir-egokitzea, bearrezkoa ba'da, eta baietz esan lei, egin bear da, baiña langilleen ziurtasuna be, gauza zain-garria da. Zelan koupondu alde bi oneitako eskubideak?

Bir-egokitzea egin eta langilleak kanpoan, lan barik itzi baiño lenago, lan-leku barriak sortu bear litzakez eta lanerako sasoi nai egoera onean dagozan guztiai lana emon, ezinduta dagozenai ostera, zar-saria edo antzekoa.

Orretarako dirutza aundia eralgi bear da, baiña zergaitik ez lagundu Europa'ko laterri ain aberatzak?

Ori egitera eltzen ez ba'gara beti izango dira gorabeera larriak.

MARTIK' ek



IRAKURLE: 1. ZER'eri DAGOKION URTEKO SARIA ORDAINDU EZ BA'DOZU, BIALDU EGIZU "TXEKE" BAT "EUSKERAZALEAK ALKARTEA"REN IZENA EZARRITA COLON DE LARREATEGI 14, 2.ª'ra. 1.200 PEZETA DIRA. ESKERRIK ASKO!

2. IDAZTEN BA-DAKIZU, IDATZI, LANAK URRI DATORKUZ-ETA. ESKE-RRAK BARRIRO.

ZUZENDARITZAK

EUSKALTZAINDIA TA EUSKALKIAK

Urrillaren 15'eko "Deia" egunkarian irakurri dogu Euskaltzaindiak Bilbao'n batuko dauzala Europa'n diran Izelki-Izti'ko jakitunik aundienak.

Jakitun oneik azterketa sakona egingo dabe Euskalki-Izti' ari dagokiozan arazo guztiak buruz.

Batzar Nagusi au izango da Euskaltzaindiak Bilbao'n dauan bere etxe ta lan-toki barriaren askundea. Orain arte lan-toki bat baiño geiago izan dabelako oso txarto ibilli ei dira euskaltzain errukarriak. Eta beste batzuk?

Jasokizun bi onek, Askundea ta Laterri Arteko Batzar Nagusia, batera datoz Luis Luziano Bonaparte'ren eungarren urtea ospatzeagaz. Aurten dira eun urte Euskalki-zale bizi au il zala.

Batzar Nagusi ori dala-ta, ara zer diñon Euskaltzainburu dan Jean Haritschelhar'ek: Guzurra da Euskaltzaindia euskalkien aurka doala eta euskera batua baiño ez dauala aurrera ateraten, an-or-emen esaten dana izan arren. Iñok ez dau egin Euskaltzaindiaren beste lan euskalkien arloan eta Batzar Nagusi onek orixe baieztatzen dau" (Berba oneik erderaz idatziak dira eta neuk euskeratu dodaz "Deia"tik artuta).

Nik ez dot ulertzen zelan esan leiken ori Euskaltzainburu jaunak. Guzurra ez dala berak guzurtzat artzen dauan eritxi ori ziurtatzeko, naikoa da gure eskola edo ikastola batera sartzea: Bizkai'ko eskola ta ikastoletan ez da irakasten bizkaierarik, batua baiño, eta umeak etxera doazenean, or ikusten doguz euren gurasoakaz alkar ulertu-eziñik eta euren gurasoai euskerarik ez dakiela edo euskeraz txarto egiten dabela esaten.

Ori ez dala Euskaltzaindiaren errua esango ete dau? Noren errua ba? Nok asmau eta zabaldu dau bizkaieraa iltera datorren batu ori?

Bai, ba-dago Euskaltzaindia euskalkien eta, batez be, bizkaierearen alde: Ilten danerako errietan esal-

diak batzen dauz eta illeta on bat ospatzeko be gertu dago. Ez dago aurka.

Etorriko diran izkelgi-zale guzti orreik gure egoera larriaren barria jakin bearko dabe, baiña ez Euskaltzaindiak emonda, bere erara emongo leuka-zelako barri guztiak. Beste batzuk egin bearko dogu lan ori.

Ondo dakigu izkelki-zaleak "Batuaren" arerioak dirana. Au ez da gure zusmoa, euretarikoak agertu dauskuen eritxia baiño.

Zelan izango dira ba izkelki zaleak Batuaren aldekoak, batuzale eta izkelkizale alkarren aurkakoak izanik?

Baiña emengo egoera negargarria, dan lez, agertu bear jake. Gero emon dagiela euren eritxia.

Gotzon Aurrekoetxea'k aitutzen dau gero Euskaltzaindia'k gertau dauan Euskalkien Lur-Irudi Txorta. Ikusiko dogu zer agertzen dan, baiña olako "Atlas" egiteko euskalkiak ondo jakin bear dira eta ez da aitzu bear "Izelki-Iztiaren Santutegia" abostegia, "fonetika" dala eta arlo orretan ez dot nik jakitun asko ikusten, Txillardegia alde batera itzi ezkeror ez dakit beste iñor. Eta Txillardegia'k Fonetika orokorra ondo ikasi ba'dau, eta aukerak izan dauz orretarako, ete daki euskal fonetika oso berezia dala?...

Elduko al da Europa'ko jakitun orrean girora Euskalerrian ainbeste euskaldunek egiten dauan garrasia, ilteko arriskuan dagozan euskalkien ulua!

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa